

### III. ATALA ERRAMUN BAXOKI ESKAINITAKO LANAK

>>>

# 3

## HIZKUNTZA-POLITIKA IPAR EUSKAL HERRIAN: NONDIK NORA? IBILBIDEAREN AZTERKETA

Jean-Baptiste *Battittu* Coyos

*IKER Euskarari eta Euskal Testuei buruzko Ikerketa Gunea,*  
Helbide elektronikoa: [jean-baptiste.coyos@wanadoo.f](mailto:jean-baptiste.coyos@wanadoo.fr)

"Azken urte hauetan Euskal Herriak aldaketa sakonak jasan ditu, nola demografiaren aldetik hala gizarte bizitzaren aldetik: tokiko jendetza zahartzen den neurrian, etorkinek jarraipena segurtatzen dute. Hizkuntzak eta kulturak nahasten dira herri kulturaren tokia hartuz. Azkenean geure nortasunaz dudatzen gara".  
(E. Baxok, Bat, 2007, 65. zk.)

Artikulu honen izenburu hori handiustekoa iduri daiteke. Halere, euskararen alde egiten dena aztertzen, neurtzen, ebaluatzen entseatzea garrantzitsua dela uste dugu, nondik nora gabiltzan ulertzeko, zer eta nola egin behar dugun jakiteko, hots gure hizkuntzaren aldeko lana hobetzeko<sup>1</sup>. Ikerketa alor horretan Erramun Baxokek parte hartu eta hartzen du noski Ipar Euskal Herrian. Bistakoa da, bere biografiak erakusten duen bezala, gure lurraldeko euskararen eragile inportanteenetarik bat izanez haraindian, hausnarketa ekarle garrantzitsuenetarik bat izan eta izaten dela oraino. Soziolinguistak gutxi dira Iparraldean eta, baldin badago, Erramun, era batez, hoi en aita dela esan genezake.

Artikulu honen helburuetatik bat da beraz Erramuni eskerrak ematea. Testuan zehar haren lanak baliatuko ditugu, noski.

## I. SOZIOLINGUISTIKAKO KONTZEPTU BATZUEI BURUZKO ZENBAIT OHAR


“Zenbat aldiz ez ditugu erreferentzia gisa, Txepetx, Fishman, Bourhis edo Vinsonneau bezalako enizenak Erramunen ahotik entzun, edozein hizkuntza edo kultura ekimen behar zelarik sostengatu, Euskal Kultur Erakundearen edo beste nonahi? Maiz omore eta arraileria apur batekin!”  
(P. Etxegoin, Bat, 2008, 67. zk.)

Teoriarik gabe, kontzepturik gabe errealitate baten ulertzea ez da erraza; orduan intuizioa da gidatzen gaituena, afektibitatea ere. Soziolinguistikako kontzeptuen alorrean Erramun Baxokek bere ekarpena utzi gaitu.

### I.1 Integrazio modeloaz: asimilazioa, bazterketa, bereizketa eta kulturbitasuna

Has gaitzen Erramunek 1997an aldizkari honetan aurkeztu duen eskema batekin, “Soziolinguistikazko inkestaren irakaspen batzuk” artikuluan. J. W. Berry Kanadako psikologoari mailegatu dio. Jatorrizko kulturaren (gure kasuan eskualduna) eta kultura berriaren (frantsesa) arteko harremanak aztertzen ditu eta sortzen diren jarrerak sailkatzen. Lau identifikazio jarrera agertzen dira: *asimilazioa, bazterketa, bereizketa eta integrazioa* edo *kulturbitasuna*.

Baxoken integrazio modelo (Bat, 1997: 26)



Eskemari so eginez, kulturbitasunaren kasuan “jatorrizko nortasunari 10 puntu eta berriari 10 puntu” ematen dira, “kulturek elgar aberasten dutelarik nahasketarik gabe” dio E. Baxokek (1997: 26-27). Egoera hori, integrazioa edo kulturbitasuna, ideala eta idealista dela suposa dezakegu. Ipar Euskal Herriko kasua hartuz, frantses eta euskal kulturen arteko kasua ez dela baieztatu dezakegu.

Eskema orokor hori biziki interesgarria da zeren eta, gure ustez, kulturetatik at kontaktuan diren hizkuntzei beraiei ere aplikatzen ahal diegu, euskarari eta frantsesari beraz.

2004an Jean-Léo Léonard frantses hizkuntzalariak Erramun Baxoken integrazio modelo hori baliatu du, Berry-ri eta Laponce-ri hartua dela

*Euskararen alde egiten dena aztertzen, neurtzen, ebaluatzen entseatzeari garrantzitsua dela uste dugu, nondik nora gabiltzan ulertzeko, zer eta nola egin behar dugun jakiteko, hots gure hizkuntzaren aldeko lana hobetzeko. Ikerketa alor horretan Erramun Baxokek parte hartu eta hartzen du noski Ipar Euskal Herrian.*

**Teoriarik gabe, kontzepturik gabe errealitate baten ulertzea ez da erraza; orduan intuizioa da gidatzen gaituena, afektibitatea ere. Soziolinguistikako kontzeptuen alorrean Erramun Baxokek bere ekarpena utzi gaitu. Egoera hori, integrazioa edo kulturbitasuna, ideala eta idealista dela suposa dezakegu. Ipar Euskal Herriko kasua hartuz, frantses eta euskal kulturen arteko kasua ez dela baieztatu dezakegu.**

esanez (36. orr.)<sup>2</sup>. Lau jarrera edo integrazio “erregimen” horiek (*régime* frantsesez), bere hitzetan, hiru integrazio “eragile” hoiekin gurutzatzen ditu: *estrukturala, funtzionala* eta *jarrerazkoa (attitudinale* frantsesez). “Lau erregimen eta hiru eragile horiek independenteak dira, hoiien konbinazioak gizarte bateko norbanakoen eta taldeen egoera determinatzen duelarik” (34. orr.).

Gutxiengoan integratzeko, frantses doktrina hizkuntza asimilazioa eta zentralismo politikoa ziren esaten digu Léonardek (2004: 37). Orain ere, doktrina horrek, mundializazioaren eta Europako testuinguruan nahi ala ez aldatzen bada ere, bere eraginak erakusten ditu Ipar Euskal Herrian. Frantziako hizkuntza politika “integrazioaren teoria”-ren bidez sailkatzen badugu *asimilazio estrukturala* indarrean dena dela esanenez, eta beraz, gure kasuan, Ipar Euskal Herrian<sup>3</sup> Asimilazioa da zeren eta kultura bat (jatorrizkoa), hizkuntza bat (jatorrizkoa) gero eta gehiago ahultzen direla, beste kulturak eta hizkuntzak (berriak) ordezkatzen dituztelarik. Adibide honetan bi hizkuntzak elkarrekin ezin bizi daitezke. Kulturbitasuna (integrazioa) ezinezkoa da<sup>4</sup>.

## **I.2 Txepetxen motibazioa / ezagutza / erabilera**

Segi dezagun orain Txepetxen teoria ospetsuarekin eta, bereziki, motibazioa / ezagutza (baina *percepción* erdaraz) / erabilera triptiko famatuarekin<sup>5</sup>. “Hiru momentu horiek bata bestea osatzen eta indartzen dute” esaten digu E. Baxokek (*Bat*, 1997: 23). Duela gutxi ere *Euskararen Erakunde Publikoak* (EEP), sortu berri den egitura publikoak, triptiko hori bere printzipio orokorretan erabili du, oinarri teoriko gisa<sup>6</sup>. Euskararen irakaskuntza eta lehen ikaskuntza EEP-ren lehentasunetan sartzen dira, bere hizkuntza-politika proiektuaren lema “Hiztun osoak helburu, haur eta gazteak lehentasun” dela jakinez.

Txepetxek lehen hizkuntza ikaskuntza (A) eta bigarrena (B) bereizten ditu, alderantzizko diren bi prozesuren bitartez lortzen baitira (1987: 36). Lehen hizkuntza ikaskuntzaren prozesua, berezkoa, ama-hizkuntzaren kasua, hola definitzen du:

erabilpena → ezagutza → motibapena

EEPren testuan, A ikaskuntza hori haurren kasua dela zehazten da, “hizkuntza entzutearen bitartez” ikasten dela gehituz (2007/11/08: 14). “Prozesua funtziona dezan, maila nahikoa konpartimendu bakoitzean erdieste beharrezkoa da, ondokora pasatzeko gisan esaten da” (2006, urria, Printzipio orokorrak), halere “hizkuntzaren entzute denbora” gehituz erabilpenarena baino lehen.


Bigarren etapa ikaskuntzaren prozesua, aldiz, hola definitua da, helburu kasuan delarik adibidez:

motibapena → ezagutza → erabilpena

Lehen ikaskuntzaren norabidea esplikatzeko, “el niño comienza a hablar cuando empieza a usar el idioma” esaten digu Txepetxek (1987: 38), “el aprendizaje lingüístico natural consiste así en un recorrido (A) que avanza desde el uso hasta la motivación” (1987: 43).

Txepetxen teoria sakonki aztertu gabe, holako lana luzeegi bailizate, esan dezakeguna ikus dezagun, gure azterketan baliagarri izan daitekeena. Prozesuak hola gauzatzen baldin badira, ohar bat berehala etortzen zaigu. Lehen ikaskuntzaren kasuan ageri da hobe dela *murgiltze* hitza erabiltea *erabilpena* baino lehen, hizkuntzaren entzutea ezagutzaren eta erabilpenaren eragilea baita. Bestelan nola ikasi / ezagutu eta erabili hizkuntza? Deusetik abiatuz mintzatzea ez da posible. Erabilpena eragiteko beste aurreko eragile bat badugu, murgiltzea, hizkuntzaren entzutea. Txepetxek berak esaten digu: “El niño aprende un idioma en la medida en la que se ve expuesto a un uso abundante del idioma a lo largo de un periodo suficiente de tiempo (...) En la adquisición primaria del lenguaje el uso lingüístico empieza como uso *recibido*: como lenguaje escuchado a los adultos y a otros niño” (1987: 53).

“Sólo el circuito representa un aprendizaje lingüístico completo (AB / BA)” esaten du (1987: 43).



Erramun Baxoken Txepetxen triptikoari buruz aurreko oharra berriz hartuz, ageri da hiru eragile horiek bata bestearekin harremanetan direla eta beraz, ibilbide (*recorrido*) edo zirkuitu (*circuito*) bat baino holako eske-ma dugula, ikaskuntza mota deneri aplikagarria zaiena:



Halere, Txepetxen eskemetan agertzen ez den eragile baitezpadakoa hizkuntza-murgiltzea da. Eta beraz, gure ustez, teoria horren ekarpen garrantzitsuenetatik bat da eraginkorra izan nahi den hizkuntza-politika batek lagundu beharko lukeen ikaskuntza-eredua murgiltze eredua litza-tekeela, lehen edo bigarren ikaskuntza izan dadin. Argi da hizkuntza murgiltzea ezinezkoa dela ikaskuntzaren prozesuan, motibapena, ezagutza eta erabilera pizten eta bultzatzen baititu.

**Frantziako hizkuntza politika «integrazioaren teoria»-ren bidez sailkatzen badugu asimilazio estrukturala indarrean dena dela esan genezake, eta beraz, gure kasuan, Ipar Euskal Herrian . Asimilazioa da zeren eta kultura bat (jatorrizkoa), hizkuntza bat (jatorrizkoa) gero eta gehiago ahultzen direla, beste kulturak eta hizkuntzak (berriak) ordezkatzeko dituztelarik.**

**Euskararen irakaskuntza  
eta lehen ikaskuntza  
EEP-ren lehentasunetan  
sartzen dira, bere  
hizkuntza-politika  
proiektuaren lema  
«Hiztun osoak helburu,  
haur eta gazteak  
lehentasun» dela jakinez.**

**Lehen ikaskuntzaren  
kasuan ageri da hobe dela  
murgiltze hitza erabiltea  
erabilpena baino lehen,  
hizkuntzaren entzutea  
ezagutzaren eta  
erabilpenaren eragilea  
baita. Bestelan nola ikasi  
/ ezagutu eta erabili  
hizkuntza? Deusetik  
abiatuz mintzatzea ez da  
posible.**

### **I.3 Fishmanen *Reversing language shift* kontzeptuaz**

Era orokorrean, esan behar da Ipar Euskal Herrian soziolinguistikaren ekarpenak ez direla ezagutuak eta beraz erabiliak, edo gutxi bederen. Teoriaz mesfidatzen da, botere publikoak edo euskal elkarteak izan daitezzen. Praktikan, ekintzan sinesten da urgentziarengatik, edo urgentzia estakuru gisa, euskararen egoera txarra delarik.

Zati hori bururatzeko Joshua Fishmanen teoria aipa dezagun. Fishman Txepetx baino aipatuago da Ipar Euskal Herrian, baina haren lanak ez dira ezagutuak. Erramun Baxok ez ezik gutxi dira Fishman irakurri dutenak. Halere, 2000n, lehen aldikoz, dokumentu publiko batean haren izena agertu zen, Hitzarmen berezian (*Convention spécifique Pays Basque 2001-2006*). Dokumentu honen 8. orrialdean esaten da: “Euskal Herriko Antolaketa eta Garapen Eskemaren elaborazioaren kariaz 1997an, euskara berreskuratzeko plana eraikitzeko Joshua Fischman-en (*sic*) aldarrikapenak baliatu izan dira”<sup>7</sup>. Euskal Herriko Antolaketa eta Garapen Eskema hori bi dokumentutan aurkezten da, 1996ko “Norabide orokorra” testuan eta 1997ko “Programmes opérationnels” delakoan. Proposatutako analisi soziolinguistikoa aski motza zen, baina esan behar da lehen aldia zela dokumentu ofizial batean euskararen aldeko politikarako hausnarketa batzuk agertzen zirela.

Bere aldetik, Erramun Baxokek, eta hura zen dokumentu horietan Fishmanen ekarpenak ekarrarazi zituen, euskararen egoera aurkeztuz Mari-Jose Azurmendi eta Francisca Zabaletarekin batera parte hartu du Fishmanen azkenurreko liburuan: *Can threatened languages be saved? Reversing language shift, revisited: A 21st century perspective*. Liburu hori garrantzitsua da zeren eta Fishmanen 1991eko *Reversing language shift* kontzeptu ongi ezagutua berrikusten du. Erramunek beste bi euskal soziolinguistekin kontzeptu hori baliatzen du, horren “belaualdi arteko etenaldi eskala graduatu”-ko (*Graded Intergeneration Disruption Scale*)<sup>8</sup> 8 etapak aztertuz, euskararen 1991eko eta 1999ko egoera konparatzeko.

Hitz bat *Reversing language shift* kontzeptuaz (RLS). Mikel Zalbide euskaltzainak bere “Ahuldutako Hizkuntza Indarberritzea: teoriak zer dio?” euskarazko artikulu elektroniko oso eta mamitsuan RLS horren aurkezpena ematen digu, besteak beste<sup>9</sup>. Oharño bakar bat egingen nuke, ingeles esamoldearen itzulpenaz. Zalbidek esaten digu: “Fishmanen esanetan, hizkuntza indarberritzea (euskaraz HINBE, ingelesez RLS edo *reversing language shift*) hizkuntzako plangintza-modu bat da”. Gure ustez, hobe litzateke hitzez hitz “hizkuntza-lerrakuntzaren alderantzikatzea” edo “hizkuntza-aldaketaren alderantzikatzea” erratea, “hizkuntza indarberritzea” (HINBE) baino, edo holako zerbait<sup>10</sup>. Hizkuntza mehatxatuak hartzen zuen galbiderako norabidea utziz beste norabidea hartzen duela uler dezakegu, ahultzen baino indartzen hasten dela noski. RLS kontzeptuan, ideia garrantzitsua litzateke hizkuntza indartsuaren eta hizkuntza ahularren arteko desoreka txikitzen ari dela, alderantzikatze horren bidez.

## II. ELKARTEEN LANA — IPARRALDEKO EUSKALGINTZAREN HISTORIAZ: HIZKUNTZA-POLITIKA BATEN BILA, ESAMOLDE BERRI BAT

“Erramun Baxok oso pertsonaia aktiboa izan da Ipar Euskal Herriko kultur munduan. Ardura asko ditu kultur elkarteetan, eta askotan egon behar izan du harremanetan botere publikoekin” (Ixabel Etxeberria, Argia, 1994-IV-3)

“Aitzinamendu miko batzuen ardiesteko, etengabeko militantismora kondenatuak gara” (E. Baxok, Bat, 1997, 22-23. zk.)

Oraiko hizkuntza-politika publikoa ibilbide zail eta luze baten emaitza da. Azken lau etapak Eramunek laburtzen ditu: “1995: Garapen Kontseilua eta hizkuntz antolaketa. 2000: Hitzarmen berezia eta hizkuntza politika. 2005: Euskararen Erakunde Publikoa eta hizkuntza politika berria. 2007: Mugaz-gaineko hitzarmena” (2007, Bat: 34).

Etap horiek baino lehen euskal elkarte batzuek, euskaltzale ausart eta gogotsuek hizkuntza-politika eremu batzuk ideki zituzten: ikastolak (murgiltze ereduarekin), helduen euskalduntze eta alfabetatzea, euskarako ikastresna sortzea edo euskaratzea, euskal irratiak, euskarazko aisialdiak, etab. Baina administrazioak, kolektibitate publikoek ez zuten lan horretan parte hartzen. Alderantziz ere.

“Laurogeita hamarreko hamarkada arte, Iparraldeko botere publikoek hizkuntz politikaren kontzeptua ez zuten aipatu ere egiten. Diru-laguntzak zuhurki ematen zizkieten euskararen alde ari ziren elkarteetatik batzuei, esleipen-irizpiderik gabe eta emaitzak neurtu gabe. Aldi berean, Frantziako legegintza aitzakiatzat hartuta, oztopo asko jartzen zizkieten elkarte horiei; ez zuten onartzen hizkuntz politika besteak bezalako esparru publikoa zenik, eta politika eta hizkuntz politika nahasten zituzten”<sup>11</sup>. Orain egiteko era hori aldatua dela esan dezakegu, eta ez dugu atzemanen hautetsi bat ere euskararen aurka izanen dena, publikoki bederen.

Hizkuntza-politika publikoaren sortzea eta bilakaera euskalgintzaren historiari lotua da Ipar Euskal Herrian. Erramun Baxoek historia horretan parte hartu, aitzindarietatik bat izanez (ikus bere biografia), eta hori buruz asko idatzi du. Beraz lerroalde hau labur izanen da<sup>12</sup>. 2006ko “Eremu urriko hizkuntzak Europa Batuan” artikuluan, adibidez, Erramunek historia hori laburtzen du eta erakusten du Europako erakundeen hizkuntzei buruzko ideologiak zer eragin zuen eta duen Ipar Euskal Herriko euskalgintzan eta bai ere Frantziako botere publikoetan.

Deixonne legea (1951/01/11) izan zen lehen urratsen oinarria (ikus III.2). Hori indarrean jartzeko, 1959an, Ikas elkarte sortu zuten euskaltzale batzuek (Haritschelhar, Lafitte, Malharin, Soubelet). 1981ean Ikasek eta Euskaltzaindiak deiturik hainbat euskal elkarte bildu ziren eta “Pour un statut de la langue et de la culture basques” [Euskararen eta euskal

*Era orokorrean, esan behar da Ipar Euskal Herrian soziolinguistikaren ekarpenak ez direla ezagutuak eta beraz erabiliak, edo gutxi bederen. Teoriaz mesfidatzen da, botere publikoak edo euskal elkarteak izan daitezzen. Praktikan, ekintzan sinesten da urgentziarengatik, edo urgentzia estakuru gisa, euskararen egoera txarra delarik.*

***Bere aldetik, Erramun Baxokek, eta hura zen dokumentu horietan Fishmanen ekarpenak ekarrarazi zituena, euskararen egoera aurkeztuz Mari-Jose Azurmendi eta Francisca Zabaletarekin batera parte hartu du Fishmanen azkenurreko liburuan. Gure ustez, hobe litzateke hitzez hitz «hizkuntza-lerrakuntzaren alderantzikatzea» edo «hizkuntza-aldaketaren alderantzikatzea» erratea, «hizkuntza indarberritzea» (HINBE) baino, edo holako zerbait.***

kulturaren estatutu baten alde] dokumentua onartu zuten. 1988an, Europako Parlamentuak 1987/10/10ean onartua den Kuijpers ebazpena erabiliz, Euskaldungoaren eskubideak / Les droits culturels basques apaindu zituzten<sup>13</sup>. Euskararen eta euskarazko irakaskuntza garatu zen (1969an lehen ikastola, 1983an lehen klase elebiduna), euskal irratia sortu eta indartu ziren (1981ean *Gure Irratia*), Pizkundeak eta Deiadar mugimenduak ekintza desberdin antolatu zituzten (1988, 1990, 1995, 1999), Euskal Kultur Erakundea eta Euskal kultura sustengatzen duen herrien arteko sindikata sortu ziren (1990).

Baina, ordu arte, hizkuntza-politika, hizkuntza-plangintza edo hizkuntza-antolaketa esamoldeak erabilten ez ziren. Ildo horretan, "Euskal Herri 2010 lurralde prospektiba (1992/1993)"-ren 1994ko ekainaren "Le Pays Basque en perspective" sintesian ez zen oraino holakorik aipatzen, euskararen egoera txarra bakarrik, eta Euskadiko eta Kataluniako esperientziak. Lehen egiazko urrats publikoa gorago adierazi dugun Euskal Herriko Antolaketa eta Garapen Eskeman agertu zen. 1996ko "Norabide orokorrak" testuan, "Kontestu honetan hizkuntz antolaketari buruzko politika egokia osatuka da (...) Hizkuntza antolaketa orokor bat asmatzera eramaten gaitu (...) euskararen aldeko hizkuntz politikarako zutabeak eraiki daitezke" esaten da, besteak beste, 59 orrialdean. Dokumentu horren 4. zatiko 5. lerroaldea eta 1997ko dokumentuaren 4. atala "Aménagement linguistique" [Hizkuntza-antolaketa] deitu zituzten.

Gero, 1999an, eta hori iraultzatzat emana izan zen, Pirinio Atlantiko-etako Kontseilu orokorrak lanpostu bat sortu zuen, "Chargé de mission de la politique linguistique" [Hizkuntza-politikarako karguduna] titulurikoa. Euskararen alde lan egin behar zuen lehen enplegatua zen Iparaldeko kolektibitate publikoetan. Okzitaniara ere bere eskumenetan bazuen eta lehen urtean Pauen kokatua zen<sup>14</sup>. Hortik landa, euskara teknikarien kopurua emendatu da Euskararen Erakunde Publikoaren sorzearekin (2004, ikus V).

Orain hizkuntza-politika esamoldea normalizat hartua da eta biziki hedatua.

### III. HIZKUNTZA-LEGERIA: FRANTSESAREN ALDEKOA BAKARRIK, EUSKARA AITORMENIK GABEKO HIZKUNTZA<sup>15</sup>

“Ofizialtasuna eta lurraldetasuna ukatuz,  
beste aitzinamendu guztiak prekaritate batean ezartzen dizkigute”  
(E. Baxok, Bat, 1995, 16. zk.)

“Bestalde elebitasuna arriskugarria da hizkuntza ahulagoarentzat, diglosiak  
hizkuntza indartsua indartzen baitu eta ahula ahultzen.  
Ondorioz lurraldetasunena finkatua den hizkuntza legeak  
beharrezko laguntzak dira”  
(E. Baxok, Bat, 1997, 22-23. zk.)

#### III.1 Frantziako hizkuntza-zuzenbidea eta haren erabileraz bi hitz

2006ko “Eremu urriko hizkuntzak Europa Batuan” artikuluan Erramun Baxokek erakusten du, testu europarrak zerrendatuz, Europako erakundeen hizkuntzei buruzko ideologiak zer eragin ukan zuen Frantzian eta nola, 1999an, Frantziak, izenpetua izanik ere, Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna berretsi ez zuen Konstituzio Kontseiluaren hizkuntza-legeriaren irakurketa hertsiarengatik.

Legeria horretan, 1992an diputatuek Konstituzioaren bigarren artikuluan gehitu zuten emendakina da ezagunena eta erabiliena. Horrek dio: “Errepublikaren hizkuntza frantsesa da”<sup>16</sup>.

Konstituzioaren 2. Artikuluaren emendakin hori aipatuz, Erramunek Konstituzio Kontseiluaren erabakia hola analizatzen zuen:

“Hiru kontzeptu baztertu ditu konstituzioarekin inkompatible zirela-kotz:

1. Hizkuntzen lurraldetasuna, errerepublikaren batasunaren aurka baitoa (1. artikulua).

2. Hitzun multzoen eskubide kolektiboak onargaitzak dira, hiritarren berdintasunagatik (1. artikulua).

3. Herri hizkuntzen erabilera publikoa ezin onartua da 2. artikulua-  
ren emendakin berriarengatik “ (2000, Hizkuntza eta lurraldea, *Soziolin-  
guistika Klusterra*).

“Europar Batasuna eta euskararen aldeko hizkuntza politika” artiku-  
luan, 2. artikulua emendatu horren beste bi ondorio aipa genituen irakas-  
kuntzan (Coyos 2006, *Euskera*: 988). Lehena da murgiltze eredu legeria-  
ren aurkakoa dela (Estatu Kontseiluaren 238653 deliberamendua,  
2002/11/29). Instituzio horren arabera, lurraldeetako hizkuntzen irakas-  
teko eredu hori Hezkuntzaren kode (*Code de l'éducation*)-tik urrunago joa-  
ten da, ama-eskolan erabiliak diren hizkuntzak bakarrak baitira eta gero  
hizkuntza nagusiak klasean eta bai ere klasetik kanpo baitira<sup>17</sup>. Beraz  
murgiltze eredu, jasana baldin bada ere Frantzian, ez da onartua. Argi  
da irakaskuntza eredu hori hoberena, eraginkorra dela hizkuntza  
gutxitu bat ikasteko, bereziki Frantzia bezalako herri kasuan non lurral-

*Azken lau etapak  
Eramunek laburtzen ditu:  
«1995: Garapen  
Kontseilua eta hizkuntz  
antolaketa. 2000:  
Hitzarmen berezia eta  
hizkuntza politika. 2005:  
Euskararen Erakunde  
Publikoa eta hizkuntza  
politika berria. 2007:  
Mugaz-gaineko  
hitzarmena» .*



---

*Orain egiteko era hori  
aldata delako esan  
dezakegu, eta ez dugu  
atzemanen hautetsi bat  
ere euskararen aurka  
izanen dena, publikoki  
bederen.*

*Hizkuntza-politika  
publikoaren sortzea eta  
bilakaera euskalgintzaren  
historiari lotua da Ipar  
Euskal Herrian. Erramun  
Baxokek historia horretan  
parte hartu,  
aitzindarietatik bat  
izanez (ikus bere  
biografia), eta hori buruz  
asko idatzi du.*

deetako hizkuntzak, bizi publikotik kasik baztertuak izanez, familietan gutxi transmititzen direla. Irakaskuntza eredu hori garatzen da Iparraldean (Seaska elkartearen ikastoletan), baina bere onarpena zalantzan dela esan dezakegu.

Legeriaren bigarren ondorioa da parekotasuneko elebidun eredu mugatu behar dela (Estatu Kontseiluaren 238653 deliberamendua, 2002/11/29). Estatu Kontseiluak erabaki du, Hezkuntzaren kodean oinarrituz berriz, ikasgai oroen irakaskuntzaren zati bat frantsesez egin behar dela. Beraz parekotasuneko elebidun ereduaren pedagogia mugatu dela esan dezakegu. Gero esan behar da, errealtatean, delibero hori ez dela beti eta klase oroetan aplikatua. Klase elebidunetan, frantsesaren erabilera gerta daiteke euskararen irakaskuntzaren denboran, bainan ikasleen mailaren arabera, mintzagaiaren arabera, irakasleak beharra asmatzen duen denboran eta ez, hain zuzen, urrutiko instituzio baten aginduaren bidez. Halere delibero murrizgarri hori hor dago.

Maiz entzun edo irakurri dugu Erramun Baxokek azpimarratzen frantses konstituzioaren 2. artikulua hori kontraesanean zegoela 1789ko Gizakiaren eta Herritarraren Eskubideei buruzko Adierazpenaren 11. artikuluekin. Azken honek hori dio: "(...) herritar orok askatasunez hitz egin, idatz eta inprima dezake...". Gure ustez kontraesanik ez da, 1789ko adierazpenak zehazten ez baitzuen zein izan zitekeen hizkuntza. 1992ko emendakinak egiten du esanez frantsesa dela Errepublikako hizkuntza, eta beraz oraiko problema da horren irakurketa, hertsikeriaz Konstituzio Kontseiluak egin zuen bezala ala, konstituzioa aldatuz edo emendatuz, baikortasuneko irakurketa eginez.

Hego Euskal Herriari konparatuz, euskara ez da ofiziala Ipar Euskal Herrian, 1978ko Espainako konstituzioak bere 3.2. azpi-artikuluaren aitortzen duen bezala: "Espainiako beste hizkuntzak ere ofizialak izango dira haiei dagozkien autonomia-erkidegotan, beraietako estatutuekin bat etorrituz". Halere, 3.1. azpi-artikuluaren hori irakur daiteke: "Espainiar guztiak dute gaztelania jakiteko eginbeharra" Frantziako konstituzioak ez du holakorik galdatzen, baina aldi berean beste herriko hizkuntzak ezeztatzen ditu. "Errepublikaren hizkuntza frantsesa da" esanez, lurraldeetako hizkuntzak ukatzen ditu.

### **III.2 Frantziako hizkuntza-legeria aldatzeko ekinaldiak**

Legeriari buruzko lerroalde hau bukatzeko ikus dezagun pixka bat zein (izan) diren lurraldeetako hizkuntzei buruzko jurisdikzio hori aldatzeko ahaleginak. Jakin behar da 1951eko urtarrilaren 11ko "Tokiko Hizkuntzei eta Dialektoei buruzko" legea, Deixonne legea deitua dena, bakarria dela frantsesetik kanpo Frantziako hizkuntzei osoki emana dena. Lege horrek "tokiko hizkuntzen eta dialektoen ikastea" baimentzen zuen (1. artikulua). Baina irakaskuntza hori borondatezkoa zen (3. artikulua) eta hori,

ordudanik, ez da sekula aldatu (ikus Coyos, *Eusker*a, 2006: 989).

1951ez geroz, Frantziako lurraldeetako hizkuntzei aldeko berrogeita hamar bat baino gehiago lege proposamen aurkeztu izan dira *Assemblée Nationale* delakoan, hizkuntza horiek lege-onarpena izan dezen, edo konstituzioaren 2. artikulua hori emendatzeko edo aldatzeko, edo Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna berrestarazteko. Gehienak ez dira eztabaidatuak izan ere; izan zirenak denak baztertuak izan dira. Hona zerrenda hain luze horren azkena, 2008ko urtarrilaren 29koa: Lurraldeetako hizkuntzak onartarazteko lege proposamena deitzen da<sup>18</sup>. Konstituzioaren 2. artikuluari proposautako emendakin hau zen: “gure ondarearen zati bat diren lurraldeetako hizkuntzak errespetatuz”<sup>19</sup>. Erantzuna betikoa izan da: ezinezkoa dela edo geroko ikusteko litzatekeela.

Halere, joan den maiatzaren 8an (2008/05/08), eskualde hizkuntzak eztabaidagai izan dute Frantziako Legebiltzarrean, gobernuaren deklarazio baten ondotik. Kultura eta Komunikazioko ministroak parlamentuko debatea kudeatu du. Hizkuntza horien aldeko lege bat hitzeman du, 2009ko berantenez. Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna berresten saiatuko ez dutela esan du ere, Frantzia Gutunaren helburuetatik urrunago joaten dela baieztatuz! Azkenik, eta hori da berri harrigarria, maiatzaren 22an deputatuek, Legeen Batzordearen proposamenaren ondotik eta Gobernuaren aldeko irizpinarekin, Konstituzioaren 1. artikuluari emendakin hau bozkatu dute ustekabeen: “Eskualde hizkuntzak (Frantziako) ondare dira”. Baina Senatuak eta gero, azken finean, Kongresuaren bi ganberek testua bozkatu beharko dute uztailean (Legebiltzarra eta Senatu elkarrekin). Hola balitz, Estatu Kontseiluak eta Konstituzio Kontseiluak geroan lehen eta bigarren artikulua nola irakurriko dituzten jakin gabe ere, egiazko aurrerapena litzateke. **Lehen aldikoz Frantziako konstituzioak eskualde hizkuntzak aipatuko lituzke. Eta hau da gertatu dena uztailearen 21ean. Baina senadorean eta Frantses Akademariaren aurkakotasuna gainditzeko, emendakina lurralde-kolektibitatei buruzko 75. artikuluan kokatua izan da**

Azkenean, Frantziak, bere legeria propioa frantsesari osoki eman eta, nazioarteko testu batzuk izenpetzen eta berresten ditu, eragozgarriak ez direnak<sup>20</sup>. Bestela bere erreserba-eskubidea baliarazten du edo, Europako Gutunarekin ikusi dugun bezala, testua ez du berresten. Hor argi eta garbi da oztopo handi bat badugula Ipar Euskal Herrian hizkuntza-politika eraginkor bat indarrean jarteko, nahitaez.

---

**2006ko «Eremu urriko hizkuntzak Europa Batuan» artikuluan Erramun Baxokek erakusten du, testu europarrak zerrendatuz, Europako erakundeen hizkuntzei buruzko ideologiak zer eragin ukan zuen Frantzian eta nola.**

Hego Euskal Herriari konparatuz, euskara ez da ofiziala Ipar Euskal Herrian, 1978ko Espainako konstituzioak bere 3.2. azpi-artikuluaren aitortzen duen bezala: «Espainiako beste hizkuntzak ere ofizialak izango dira haiei dagozkien autonomia-erkidegotan, beraietako estatutuekin bat etorritz».

#### IV. IRAKASKUNTZA: GALZORIKO HIZKUNTZARI ERANTZUN NAGUSIA EDO BAKARRA

"Hiztunen kopurua ttipitzen ari da, familia bidezko transmisioak ez du gehiago funtzionatzen eta erabilera Euskal Herriko eskualde guzietan gibelatzen da" (Euskararen Erakunde Publikoa, 2006, Hizkuntza politika proiektua: 7)

##### IV.1 Euskararen eta euskarazko irakaskuntza garatu da

Munduan zehar familian transmititu ez diren hizkuntza gutxituen babes-teko nahian irakaskuntza lehen edo tresna bakarra dela ohartzen da. Hori da Ipar Euskal Herrian gertatu dena ere. Euskararen eta euskarazko irakaskuntzaren historia ez dugu hemen eginen<sup>21</sup> Asmoa horren ebaluapen labur bat egitea litzateke, bereziki hizkuntza-politikaren helburuei begiratuz.

Aipatu dugun 1951eko Deixonne legea baliatuz, euskararen eta euskarazko irakaskuntza garatu da, eskoletan bereziki. Eta esan behar da azken urte hoietan azkartzen eta hedatzen dela, lehen mailako parekotasuneko elebidun sarean bereziki. (ama-eskola eta 1. maila). Hona zenbaki batzuk emendatze hori erakusten dutenak<sup>22</sup>:

lehen hezkuntza	urtea	ikasle kopurua	urtea	ikasle kopurua
Eskola publikoa (elebidun eredu)	1993	1 309	2006	3 627
Eskola giristinoa (elebidun eredu)	1993	593	2006	1 624
Ikastola (murgiltze eredu)	1993	1 005	2006	1 462

1993an adibidez, parekotasuneko elebidun eta murgiltze ereduak 2 907 ikasle eskolatzen zituzten; Ipar Euskal Herriko 1. hezkuntzako eskoletako ikasleetatik %10 ziren gutxi gorabehera. 2007an ikasleak 7 259 ziren, 1. hezkuntzako eskoletako ikasleetatik %29 izanez (ama-eskoletan %35 baino gehiago). Baina eredu eraginkorrena, ikastoletako murgiltze eredu, da gutxiago garatzen dena, garatzen bada ere. Halaber, helduen euskalduntze eta alfabetaze irakaskuntzak ez du, urtez urte, 1 000 ikasle kopurua gainditzen.

Euskararen Erakunde Publikoa egitura berriaren hizkuntza-politika proiektuan (ikus beherago, V. atalean) irakaskuntza da programazio zehatz bat duen alor bakarra (2005, *Euskararen eta euskarazko irakaskuntza Epe luzeko programazioa*). Urtero 4/6 irakasle postu berri aurreikusten dituzte lehen mailan (20/30 orotara), adibidez.

Halere, emendapen azpimarragarri hori, epe luzeko programazio hori zalantzan izan daitezke. Datozen urteetan Hezkuntza nazionalak irakasle lanpostu asko kendu beharko lituzke, Frantziako administrazio publikoaren murrizte politika aplikatuz. Ez dakigu argiki euskararen eta euskarazko irakaskuntzaren kasuan nola gauzatuko den.

Zorigaitzez, politika berri horren emaitzak jadanik hor dira. 2008an, hiru lanpostu eta erdi kenduko dituztela jakinarazi dute irakaskuntza elebidunean, bi lanpostu berri sortuz eta bost eta erdi ezabatuz. Aldi berean, neurri berri bat hartu dute: gela elebidun bat idekitzeko, beharrezkoa den haur kopurua handitu dute 22 ikaslerengana iraganaraziz (frantses elebarkarreko klaseetan 25). Beraz, irakaskuntza elebidunaren gorakada oztopatua dela esan dezakegu, haur kopuru orokorra handitzen baldin bada ere oraino.

## IV.2 Irakaskuntza horren muga eta ahulezia batzuk

“Ondorioz, erabileraren neurria goratzeko ez da nahikoa gaitasuna gehitzea, denbora berean hizkuntza eskaintza ere handitu behar da”  
(E. Baxok, 2000, Hizkuntza eta lurraldea, Soziolinguistika Klusterra)

Lehen oharra da euskarak gero eta leku txikiago duela lehen mailatik bigarren mailara pasatuz, halaber bigarren mailatik unibertsitatera pasatuz. Laborantza-irakaskuntzak eta irakaskuntza profesional eta teknologikoak euskararen eta euskarazko irakaskuntzarik eskaintzen ez dute oraiko. Unibertsitatean, Euskal Ikasketetatik kanpo euskara hizkuntza ez ezaguna da. Inbutu-formako irakaskuntza dugula esan dezakegu.

Fenomeno horren zuzeneko kausetatik bat euskarari esker lan gutxi eskura lezakeela litzateke, irakaskuntzan izan ezik. Euskararen Erakunde Publikoa eta Hezkuntza nazionala horrez ohartu dira, baina iduri luke bidea luzea izanen dela euskarak goiko irakaskuntzan leku egoki bat eskura dezan baino lehen. Ikaskuntza hori borondatezkoa baita, gurasoek eta gazteek bizi profesionalean euskara balio gutxikoa dela ulertzen baitute, era orokorragoan bizi publikoan ere. Norabide hori aldatzea ez da erraza izanen, frantsesa lehenik eta gero kasu gutxi batzuetan ingelesta baitira lan munduko hizkuntzak.

Escolak asko egin dezake hizkuntza babesteko bidean, baina ez du gizarte osoa euskalduntzen ahal. Gehiago ere, munduan zehar edo gure ondoan Hegoaldeari so eginez, gero eta argiago da hizkuntza gutxitu baten ezagutzak ez duela automatikoki haren erabilera ekarten, erabilera hizkuntzaren osasunaren adierazle nagusia delarik (gure ustez bederen). Hortan hizkuntza-politika kudeatzen duten arduradun publikoek beren ustea aldatu beharko lukete. Iñaki Martínez de Lunak eta Ibon Usarralde Hego Euskal Herriaz esaten dutena indarrean dago Ipar Euskal Herrian, era biziagoan: “Gure ingurunean argi dago, oro har eremu batzuetako funtzio batzuetarako izan ezik, erdaren aldeko erakarpen faktoreak askoz indartsuagoak dira euskarara erakartzen duten faktoreak baino” (2004, www.erabili.com).

Euskadin, 1993ko Euskal Eskola Publikoaren Legeak bere 18. atalean dio: “Euskara eta gaztelania nahitaez sartuko dira euskal eskola publiko-

**1951ez geroz, Frantziako lurraldeetako hizkuntzei aldeko berrogeita hamar bat baino gehiago lege proposamen aurkeztu izan dira Assemblée Nationale delakoan, hizkuntza horiek legeon arpena izan dezen, edo konstituzioaren 2. artikuluko hori emendatzeko edo aldatzeko, edo Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna berrestarazteko.**

---

**1993an adibidez, parekotasuneko elebidun eta murgiltze ereduak 2 907 ikasle eskolatzen zituzten ; Ipar Euskal Herriko 1. hezkuntzako eskoletako ikasleetatik %10 ziren gutxi gorabehera. 2007an ikasleak 7 259 ziren, 1. hezkuntzako eskoletako ikasleetatik %29 izanez (ama-eskoletan %35 baino gehiago). Baina eredu eraginkorrena, ikastoletako murgiltze eredua, da gutxiago garatzen dena, garatzen bada ere.**

an gara daitezen programetan, bi hizkuntzen ahozko zein idatzizko ulermena eta adierazpena benetakoa izan eta gutxienez ohiko harremanetarako eta erabilerarako hizkuntza gisa erabili izan ahal daitezen". Frantzia holako legerik ez dugu. Lurretatoko irakaskuntza borondatezkoa da (ikus III.2).

2007an, Eusko Jaurlaritzak aginduta 6. mailako haurrek B1 azterketa pasatu zuten, Euskadin, lehen hezkuntzako bukaeran beraz<sup>23</sup>. Emaitzak ez ziren hain onak: A ereduko ikasleen %2k, B ereduko %39k eta D ereduko %76k B1 hori gainditu dute. Gauza bera izan zen B2 mailako azterketarekin 15-16 urteko ikasleek pasatu zutenean 2004an: A ereduko ikasle bakar bat ere ez da proba gaintzeko gai izan, B ereduko %27,5ek gaintu du, eta D ereduan %57,2k. Ipar Euskal Herrian holakorik ez dugu. Hezkuntza nazionalak euskara eta euskaraz ikasten duten ikasle euskara maila ez du neurtzen. Azterketak denak frantsesez egiten dituzte, proba bat edo bi salbu, euskaraz ikasten duten ikastoletako haurrak barne. Horrek ere argiki erakusten du, euskararen eta euskarazko irakaskuntza jasaten badu ere, Frantziak ez duela bere osotasunean onartzen. Lurretatoko hizkuntzak ikasten eta irakasten dira irakaskuntza horren emaitzak zein diren jakin gabe zehazki, haurren gaitasunak ebaluatu gabe.

Haatik, 2008ko otsailaren 2an, Europako Kontseiluaren Europako Erreferentzia Europar Bateratua aipatuz, Euskararen Erakunde Publikoak, Paueko akademia ikuskariarekin batera, urrats kuantitatiboa egin ondoren urrats kualitatiboari ekiteko tenorea zela azaldu du eta maila bakoitzean lortu beharreko ezagutza finkatuko dituztela. Etapa hori behar beharrezkoa da. Ea nola gauzatuko den, oraino eperik, baldintzarik finkatu ez dituztela ohartzuz.

Irakaskuntzaren lehen ondorioa belaunaldi gaztearen euskararen ezagutzaren beharrekada oztopatzea litzateke. 2001eko Soziolinguistikako inkestaren arabera, euskara ongi edo asko ongi mintzatzen direnen kopuruak horiek dira Ipar Euskal Herrian: 65 urtetik gorakoak %37, 46-64 urtekoak %29, 30-45 urtekoak %21, 16-29 urtekoak %22. Holako zerbait aurki dezakegu 2006ko Euskal Herriko Kale Erabileraren V. neurketan.

## V. ORAIKO HIZKUNTZA-PUBLIKOA: EUSKARAREN ERAKUNDE PUBLIKOA

“Euskara legez ukatua, herritarren prezioz laguntzera behartua, EEPk eperik, neurgailurik eta helbururik gabeko hizkuntza politika ezarri du plantan, ezagutza ofizialik ez duen hizkuntzaren berreskurapena, borondate xumean oinarritu daitekeelakoan”.  
(Aitor Renteria, Enbata, 2008/02/28, 2018. zk.)

### V.1 Politika berriaren helburu nagusia: “*Hiztun osoen kopurua emendatzea*” — Zertarako?

A. Renteriaren aipamen latz horren atzean dena aztertzea lerroalde honen helburua litzateke. Era batez, Euskararen Erakunde Publikoaren (EEP, *Office Public de la Langue Basque*) eragina zein den ebaluatzeko goizegi da, egitura gaztea baita, jakinez urteak eta urteak behar baitira hizkuntza baten egoera aldatzeko<sup>24</sup>. 2004ko uztailaren 9an sortutako hizkuntza politikarako egitura publikoak 2007an bete du hizkuntza politikarako proiektuaren lehen urtea.

Halere egin izan diren hautuak, norabide aitortuak, printzipioak aztertu behar ditugu eta hoietan lehen lehenik garatzen den politikaren helburu adierazia<sup>25</sup>. Hortarako 2006ko abenduan EEP-k aurkeztu duen bere 2007-2010 hizkuntza proiektua arretaz miatu behar da. “Hemendik aitzina, egitasmo hau izanen da ekintza publikoa bideratuko duen erreferentziako markoa. Gisa horretan eraman urratsen eragina erregulariki neurtu beharko da, dela euskararen bilakaeran, dela haren presentzian eta erabileran (...). Hiztun osoak helburu, haur eta gazteak lehentasun. Horra proiektu honen nahikundea, euskararen transmisioaren, erabilera-aren eta bizkortasunaren alde lan egiten duten eragile guzietan bere egiten dutena gaur” esaten da (EEP, *Hizkuntza politika proiektua*, 2006: 1).

Izenburuan jadanik politikaren helburua agertzen zaigu, helburu ez hain zehatza, helburu orokor bat, edo, proiektuaren hitzetan, nahikunde bat: “Hiztun osoak helburu, haur eta gazteak lehentasun”. Parafraseatzen da: “Helburu nagusi bat: Hiztun osoak Lehentasun bat: belaunaldi gazteak” (EEP, 2006: 11), “Bete beharreko helburua: “hiztun osoen kopurua emendatzea” — eta estrategia — “belaunaldi gazteengan apostu egitea” (EEP, 2006: 15). Helburu honen gauzatzeko 12 “erronka nagusi” identifikatuak dira. Horiek hizkuntzaren transmisioan, gizarte-erabilera eta hizkuntzaren bizindarrean (“*bizkortasuna*”) banatuak dira. Gure ustez, “muga-aren alde honetan, hainbat hamarkadaz geroztik euskarak gainbehera azkarra jasaten du[ela]” ohartuz (EEP, 2006: 9), argi eta garbi da proiektuaren helburu hori orokorregia dela, ez dela bat ere eragozgarria.

Zein izan daiteke hizkuntza mehatxatu baten aldeko politika baten helburu nagusia?

*Eskolak asko egin dezake hizkuntza babesteko bidean, baina ez du gizarte osoa euskalduntzen ahal. Gehiago ere, munduan zehar edo gure ondoan Hegoaldeari so eginez, gero eta argiago da hizkuntza gutxitu baten ezagutzak ez duela automatikoki haren erabilera ekarten, erabilera hizkuntzaren osasunaren adierazle nagusia delarik (gure ustez bederen).*

---

*Hezkuntza nazionalak euskara eta euskaraz ikasten duten ikasleen euskara maila ez du neurtzen. Azterketak denak frantsesez egiten dituzte, proba bat edo bi salbu, euskaraz ikasten duten ikastoleetako haurrak barne. Horrek ere argiki erakusten du, euskararen eta euskarazko irakaskuntza jasaten badu ere, Frantziak ez duela bere osotasunean onartzen.*

- Biztanleek orok hizkuntza hori ezagut dezaten, hizkuntza nagusiaren pare?
- Hizkuntza bizi dadin? Baina kasu honetan biztanletatik bakar bat mintzatzen baldin bada hizkuntza bizi dela esan dezakegu.
- Hizkuntza egunoroko hizkuntza izan dadin herritar batzuentzat, familian, baina ere lanean, administrazioarekiko harremanetan, saltegitan? Eta orduan zenbat herritar: %80 erdia, laurdena?
- Hizkuntza irakatsia izan dadin eskolan, baliorik gabekoa izanik ere lan-munduan? Etab, etab.
- Bi mutur-kasu hoiere artean posibilitate asko badira, ezinezko euskal elebakartasun orokorra baztertzeko dugularik oraiko bizi-moduaren baldintzetan, hiztun bakar batzuk izan ezik.

Posibilitateen gama biziki zabala dela ikusten dugu. EEP-k hautatu duena minimalista da era batez. Logikoki, hiztun osoen kopurua emendatuz euskarak bizitzen segituko du, baina nahiko bizindar linguistiko hori eskuratzeko baldintza soziolinguistiko batzuk bete behar dira, eskolatik kanpo erabilia izan dadin.

Beste era batez esanik, EEP-ek zertarako helburu hori hautatu duen? Zein dira eskuratu nahi diren emaitzak? Hizkuntza mehatxatuaren (euskara) eta hizkuntza nagusiaren (frantsesa) arteko harremanak nola ikusten dituzte? Aztertzen dugun kasuan, lortu nahi den hiztun osoen emendatze hori zertarako?

- Ditugun emaitzak hobetzeko? Ipar Euskal Herrian 69 000 hiztun baziren 1991an (%33) eta 54 500 2001ean (%25), Eusko Jaurlaritzak kudeatzen dituen soziolinguistikako inkesten arabera. Gure lurraldean, euskararen kale erabilera 1993ko %6,5etik 2006ko %4,6ra jaitsi da Euskal Herriko Kale Erabileraren V. neurketaren arabera. Baina, hiztun kopuruari baikiz ez so eginez, iduri luke balizko hiztun kopuruaren emendatze gordin hori hizkuntzaren ezagutza eta erabilera berdintzea litzatekeela.

- Egiazko elebitasuna lortzea, elebitasun orekatua beraz, norbanako elebitasuna izan dadin ala gizartearen mailan? Kasu honetan oraiko hizkuntzaren bizi-baldintzak osoki aldatzeko lirateke Ipar Euskal Herrian eta bide luze bat egiteko litzateke.

Horiek oro esan eta, Euskararen Erakunde Publikoaren politika berri horren helburua aski aurreikusitako, hausnartu, zehaztu ez dela agertzen zaigu.

## V.2 Politika berriaren muga nagusia: “Hizkuntz gogoa, motibazioa, motibapena”

“Orduan zergatik ikas etxean eta eskolan beharrezkoa ez den hizkuntza?  
Gure nortasuna zaintzeko?  
Egia, motibazio sinbolikoak ederrenak dira baina ahulenak”  
(E. Baxok, Bat, 1997, 22-23. zk.)

Euskararen Erakunde Publikoaren proiektua eta beraz aztertu dugun helburua motibapenean oinarritzen da. Proiektuan hori argiki esana da: “Garrantziari dagokionez hizkuntza politika proiektuaren lehen erronka da motibazioarena, gorago aipatu hamaika erronketan, guztien eta bakoitzaren lorpena baldintzatzen baitu” (2006: 73). EEP-ren testuen zehar, politikaren euskarria “hizkuntz gogoa”, “motibazioa”, “motibapena” deitzen da eta hor da, gure ustez, estrategiaren, metodoaren ahulezia. “Erronka nagusi” hori hola deskribatzen dute: “Motibapena piztu, indartu eta egonkortu, euskararen ikastearen, baliatzearen eta jarraitzearen aldeko dinamika iraunkor bat jendartean sortzeko gisan” (2006: 89). Legearen arabera euskararen ezagutza beharrezkoa ez dela ikusi dugu gorago; gehiago ere legeak euskarari aitorpenik ez dio ematen (ikus III). Beraz, babesik gabe, hizkuntzaren geroa norbanakoen nahikarian gelditzen da, bakoitzaren ahaleginetan.

Baina, zorigaitzez, motibapenari buruzko adierazleetatik gehienak negatiboak dira Ipar Euskal Herrian. Ez ditugu denak zerrendatuko hemen. Hona garrantzitsuenetatik batzuk:

- Familia bidezko transmisioaren gelditzea: Azken bi belaunaldietan euskaldunen gehiengo arbasoengandik jasotako euskara ez zaie hurrei transmititu.

- Inmigrazio erdalduna: Gero eta etorkin gehiago dator Iparraldera bizitzeko (Frantziatik bereziki), euskal kulturaz eta hizkuntzaz ezer jakin gabe. Biztanleriaren gorakada etorkinei esker baizik ez da egiten.

- Helduen euskara ikasteko gogoaren eskasa: 2006ko *Euskal nortasuna eta kultura XXI. mendearen hasieran* inkestaren arabera, pertsona heldu gutxik nahi dute euskara ikasi. Iparraldean %61-ek ez dute ikasi nahi, %56-ek Nafarroan eta %40-ek Euskal Autonomia Erkidegoan, adibidez. Aritu izan zirenak %8 dira Iparraldean, %15 Nafarroan eta %28 Euskal Autonomia Erkidegoan (2006: 62).

- Euskara beharrezko ez den tokiko hizkuntza: Iparraldeko gizartean bizitzeko, frantsesa beharrezkoa da bizi publikoan, administrazioetan, lan-munduan, merkataritza-trukeetan, aisialdian, etab. Nahitaezkoa da, euskara aldiz ez. Azken mendeetan alderantzia zen, frantsesa era orokorrean funtzionarioentzat eta goiko klaseentzat baizik ez baitzen.

Hori guztia kontuan hartuta, adierazle batzuk positiboak izanik ere (elkarteen eta euskaltzaleen lana, euskara eta euskaraz ikasten ari diren

---

*Posibilitateen gama biziki zabala dela ikusten dugu. EEP-k hautatu duena minimalista da era batez. Logikoki, hiztun osoen kopurua emendatuz euskarak bizitzen segituko du, baina nahiko bizindar linguistiko hori eskuratzeko baldintza soziolinguistiko batzuk bete behar dira, eskolatik kanpo erabilia izan dadin.*



**EEP-ren testuen zehar,  
politikaren euskarria  
«hizkuntz gogoa»,  
«motibazioa»,  
«motibapena» deitzen da  
eta hor da, gure ustez,  
estrategiaren, metodoaren  
ahulezia.**

**Legearen arabera  
euskararen ezagutza  
beharrezkoa ez dela ikusi  
dugu gorago ; gehiago ere  
legeak euskarari  
aitorpenik ez dio ematen  
(ikus III). Beraz, babesik  
gabe, hizkuntzaren geroa  
norbanakoen nahikarian  
gelditzen da, bakoitzaren  
ahaleginetan.**

haur kopuruaren emendatzea, botere publikoen jarrera berria<sup>26</sup>), badirudi “hizkuntzaren nahi”, “motibapen” horiek ez direla behar bezain eraginkorrak izango euskararen egoera aldatzeko.

“Motibapena / halabeharra”-ren dialektika sakondu beharko daiteke. Horren adibide bat da gure gurasoek frantsesa ikasi dutela ez motibapenarengatik, bainan bai bereziki halabehararengatik. Beraz euskara ere beharrezkoa bilakatu behar da Ipar Euskal Herrian, era batez edo bestez, frantsesarekin batera.

Azken ohar bat. Era orokorragoan, iduri du hizkuntza-politika proiektu horren oinarri teorikoa urria dela.

### **V.3 Politika berriari buruzko beste ohar batzuk**

Gauza baliagarri berri batzuk egituratu ditu Euskararen Erakunde Publikoak. Euskararen teknikari sare bat garatu du sei lanposturekin herri elkargo edo hiritan, soldaten erdia beregain hartuz<sup>27</sup>. EPPko talde profesionala bera ere azkartu da zazpi langilekin orain. Giza-eremu berri bat ireki zaio euskarari, haur txikien harrerarena haurtzaindegi elebidun edo euskaradunetan<sup>28</sup>.

Politika berriaren helburuetatik bat euskara hizkuntza bakarrekiko leku, alor sortzea izan behar litzateke. Elkarrekin sortu zituzten ikastolak eta euskal irratiak holako adibideak dira, baina gutxi dira. *Oasi euskaldun* horiek euskarari bizitzeko ahalak ematen dizkiote, lehiaketa desorekatuan ez baita beste hizkuntzarekin<sup>29</sup>. Bestenaz desoreka horren ondorioetatik bat da, eta hori munduan zehar ohartua izan da, hiztunak hizkuntza gutxitutik hizkuntza nagusira lerratzen direla. Horri buruz, euskara hizkuntza bakarrekiko alor berririk idekitzeko asmorik ez dugu ikusten EEP-ren proiektuan, haurtzaindegiak izan ezik.

Beste balorazio-irizpide garrantzitsua aurrekontua da. 2007koa 2.066.000 eurokoa zen eta ez dute gehitu 2008an. Egituraren funtzionamenduarentzat 466.000 euro gastatuko dituzte 2008an, aurrekontuaren laurdena beraz. Eusko Jaurlearitzako laguntza izanik ere (500.000 euro), aurrekontu hori ahula dela esan dezakegu, hizkuntza menperatu horren beharren aurrean. 2007an adibidez, elkarrekin eta beste eragile pribatuek aurkeztuak ziren 82 proiektuetatik 33 ezeztatu dituzte, hautatze-irizpideetan ez direla sartzen azalduz. Diru eskasa funtsezko arrazoia zen, gure ustez. Diru-laguntzaren gehiengoa 2001az geroztik Euskal Herriko Hitzarmen bereziaren bidez lagunduak ziren elkarte eta erakundeei doakie. Egia da EEP-ren proiektua elkarrekin ideki dituzten hizkuntza-politika eremuetan oinarritzen dela (ikus gorago II). EEP-k, haurtzaindegi elebidun edo euskaradunak izan ezik, ez dio hizkuntzari beste gizarte erabilereremurik eskaintzen.

Euskara hizkuntza menperatu eta mehatxatu delarik, beharrak guttiz handiak dira. Definitu dituzten hamabi erronka horiek garabidean jarri teko ere, baliabideak gehiago baliatu beharko dira.

Azterketa motz hau bukatzeko, azpimarratu behar da ere hizkuntza-politika proiektuaren zehaztuak diren “12 erronkek” eperik gabe azalduak direla. Esan nahi baita egutegirik ez dela, 2010 arte bederen. Gorago esan dugu, halere, euskararen eta euskarazko irakaskuntzak programa bat baduela. Baina eremu bakarra da.

Halaber, egitasmu desberdinak gauzatuak diren ala ez ebaluaketa-neurgailurik ez da. Halere, irakaskuntzaren kasuan, berriz, ikus dugu tresna sortzeko nahikeria dutela. Era orokor batean, proiektuak hizkuntza-politika eremu asko kontuan hartzen ditu, baina azaleko eran.

Esan dugun dena kontuan hartuz, egitura publiko berri hori eta bere hizkuntza-politika proiektua urrats beharrezko eta garrantzitsuak direla agertzen zaigu, baina aldi berean nahikoak ez direla oraino “hizkuntzaren aldaketaren alderantzizatzeko” (ikus I.3). Ikusiz zein den frantsesaren eta euskararen arteko desoreka Ipar Euskal Herrian, badirudi hizkuntza-politika proiektua ez dadila behar bezain eraginkorra izango euskararen egoera zinez aldatzeko. Hau da bederen gure ikusmoldea.

## VI. IPARRALDEKO GIZARTEA EUSKALGINTZATIK HARAT: ZER JARRERA EUSKARAREKIN?

“Iparraldeko kasuan gauzak atzeratuago dira: gure kizkuntz eskubidea indibiduala da eta ez kolektiboa (...)  
Nortasun kolektiboa zatitzen digute.  
Ni beldur naiz ikurrak ematen baitizkigute, hain zuzen, herriaren izatea ukatzeko”  
(E. Baxok, Bat, 1995, 16. zk.)

Laburbiltzeko, hizkuntza-politikaren partaideak hiru direla esan dezakegu. Alde batetik elkarteak egile/eragileak direnak, bestetik botere publikoak komanditario/ordaintzaileak direnak (eragileak ere kudeatzen dituzten alorretan) eta *last but not least* gizartea onuraduna dena (gizartea ere egilea da, hizkuntza biziartzten, erabilten edo, alderantziz, baztertzten, uzten baitu).

Gorago ikusi dugun bezala, elkarteak dira euskararen aldeko egiturak sortu dituztenak, hizkuntza-plangintzaren eremuak ideki dituztenak. Gero botere publikoek politika hori beregaindu dute Euskararen Erakunde Publikoaren koadroan, elkarteak politika publikoaren eragileak bilakatuz. Baina betetzen zuten akuilu funtzioa begiratu dute eta elkarte horietatik batzuk ez dira sartu politika publikoan. Azken horiek kontraboterezko papera izan nahi lukete (Kontseilua, Euskal Herrian Euskaraz).

Ipar Euskal Herrian ez gara Hego Euskal Herrian bezain aurreratuak, euskararen egoeraren ebaluaketa izan dadin, ezagutza teorikoan izan dadin edo hizkuntza-plangintzan. Halere, ezagutza desberdin horiek emendatzen ari dira eta mugaz gailentzeko egiturak, mugaz gailentzeko elkarteak gero eta gehiago dira. Duela gutxi ere mugako bi aldeetako kolektibitate publiko batzuk harremanetan sartu dira, euskararen babes-teko asmoz. Beraz ezagutzak, gaitasunak, egiten jakiteak gero eta gehia-

---

*Adierazle batzuk positiboak izanik ere (elkarteen eta euskaltzaleen lana, euskara eta euskaraz ikasten ari diren haur kopuruaren emendatzea, botere publikoen jarrera berria ), badirudi «hizkuntzaren nahi», «motibapen» horiek ez direla behar bezain eraginkorrak izango euskararen egoera aldatzeko.*

**Era orokor batean,  
proiektuak hizkuntza-  
politika eremu asko  
kontuan hartzen ditu,  
baina azaleko eran.**

**Esan dugun dena kontuan  
hartuz, egitura publiko  
berri hori eta bere  
hizkuntza-politika  
proiektua urrats  
beharrezko eta  
garrantzitsuak direla  
agertzen zaigu, baina aldi  
berean nahikoak ez direla  
oraino «hizkuntzaren  
aldaketaren  
alderantzikatzeko».**

go trukatuak dira, elkarrenganutzen dituzte, hizkuntza-plangintzaren alor desberdinetan.

Lerroalde honen izenburuko galderari ihardesteko, beste batzuekin Erramun Baxokek kudeatu duen 2006ko *Euskal nortasuna eta kultura XXI. mendearen hasieran* mugaz gaindiko inkesta erantzuteko abiapuntutzat hartuko dugu: zein da Ipar Euskal Herriko gizartearen jarrera euskarari buruz? Galdera hori garrantzitsua da zeren eta gizartearen atxikimendurik gabe euskararen aldeko eginahalak alferrikakoak lirateke.

Gorago, V.2 lerroaldean, ikusi dugu inkesta horren arabera Ipar Euskal Herrian pertsona heldu gutxiagok euskara ikasi nahi dutela, beste lurraldeetan baino. Pertsona gutxiago ere euskara ikasten saiatu dira. "Paradoxo" bat topatu dute eta hori Euskal Herri osoko: "Jende gehienak [euskara] euskal kulturaren eta nortasunaren oinarrian kokatzen du (...) baina aldi berean euskaraz ez dakiten askok ere beren euskal nortasuna eta euskal kulturaren parte izatea onar dadin eskatzen dute, euskararen ezagutza euskal nortasunaren eta kulturaren ezinbesteko baldintza denik ukatuz" (*Euskal nortasuna...*, 2006: 140-141). Esan nahi du beraz pertzepzioetan, iritzietan bederen euskara ezinbestekoa ez dela.

Era berean, nortasunetik at, buru eta gizarte-irudikapenetik at, bizi publikoan ere euskara ezinbestekoa izan behar litzateke, eremu batzuetan bederen. Euskara hizkuntza gutxitua baita, eskolaz kanpoko inguru-nea aberatsago da frantsesez euskaraz baino. Frantsesa erakargarriena da aisialdian, kulturari, lan-munduan ofizio bat eskuratzeko. Administrazioan, zerbitzu publikoetan frantsesa da harremanetarako hizkuntza. Zure solaskidea ez baduzu ezagutzen, frantsesez hasiko zara eta segituko. Oro har, familia euskaldun bakanetan izan ezik, euskara ikasgai formala egoten da, eskolatik kanpoko balio gutxiko gauza izanez, sinbolikoa bereziki, ikurra gisa erabilia dena.

Halere, adierazle positiboak ere badira Ipar Euskal Herrian. 2001an, Hitzarmen berezia kudeatzen zuen Obragintza publikoak zundaketa bat eginarazi zuen zein zen 0-2 urteko haurren gurasoen asmoa beren haurrentzat jakiteko, hori Baiona-Miarritze-Angeluko hiri-aglomerazioan (*Sondage: Les parents d'enfants de 0 à 2 ans du B.A.B. et l'apprentissage de la langue basque*). Emaitzak aski estonagarriak izan ziren batzuentzat: gurasoetatik %56-k nahi zuten beren haurrak euskara ikas dezan; horietatik %75-k nahi zuten ama-eskolan has dadin. 2006ko inkestan ere zerbait konparagarria ateratu da: Iparraldean galdezkatuak izan direnen artean beren seme-alabek jadanik euskara badakite %20, %48-k nahi lukete euskara jakin dezaten eta %7-k baizik ez dute nahi (*Euskal nortasuna...*, 2006: 69).

Gizartearen engeiamendua datu eta gertakari zenbaitetan ere neuritzen da, ikastolen aldekoetan adibidez non herritar ez euskaldunek ere parte hartzen duten: Seaska elkarteak urtero antolatzen duen Herri Urrats gertakari jendetsua diru biltzeko, ikastoletako gurasoek 650 000 euroko eskola-gastuak (Akitaniak edo Departamenduak EEP-ri baino

gehiago), ikastoletako ahalmen urriko haurrentako laguntzaileen ordaintzeko kanpaina (2008an 95 000 euro biltzeko). Korrika, Euskal Herria zeharkatzen duen lasterketa erraldoia, Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundea elkartearen alde, urteroko kanpainak diru-laguntzak elkartzeko euskal irratientzat, sustapen kontzertuak ere aipa ditzakegu. Beraz euskara sustatzeko hirugarren diru-iturri bat badugu Frantziako kolektibitateena eta Eusko Jaurilaritzarena izan ezik, herritarrena, berezi-ki euskaltzaleena.

Oro har, gutxitu nahi gabe ere, iduri luke irakaskuntzatik at Ipar Euskal Herriko gizartearen jarrera orokorra ez dela hain bizkorra. Halere, eta aldi berean, euskararen aldeko ekintzak, eginahalak normalizat hartuak dira, gero eta gehiago.

## VII. ONDORIO GISA: BI HIZKUNTZEN ARTEKO DESOREKA ESTRUKTURALA

“Euskararen funtzio sinbolikoa denek onartzen dute,  
baina sinbolismoa laster gal lezake,  
ez bagara folklorismotik erabilera publikora igan egiten.  
Eskolak euskalduntasuna salbatuko du,  
famiariaren lankidetzari ardiesten badu eta gizartearen jarraipena”.  
(E. Baxok, Bat, 2007, 65. zk.)

“Euskararen egoeraz zoriontzeko arrazoirik badaiteke?  
Minimalistentzat agian edo  
baikortasun kronikoan bizi direnentzat.  
Ipar Euskal Herrian horrelako fase batean gaude”.  
(Maixan Merkapide, Le journal du Pays basque, 2007/09/27)

Ipar Euskal Herrian euskararen oraiko egoeraren eta haren aldeko lan egiten denaren sintesi bat baliagarria litzatekeela uste genuen, egoera horren elementu gehienak ezagunak izanik ere. Ez dakigu helburu hori kausitu dugun, era batez “jadanik dena esana dela” ohartuz. Halere holako bilduma beharrezkoa zela pentsatu dugu, Erramun Baxoken urratsetan ibiltzen saiatuz. Esperientzia enpirikoak nora, nola joan ez digu esaten. Ikerketa fidagarrien bidez, deskripzio objektuen bidez, azalpena etor daiteke, gure indarrak non eman beharko genituzkeen erakusten duen azalpena.

Hona, bukaera gisa, egin dugun bilana laburbiltzeko taula bat, Iñaki Martinez de Luna eta Ibon Usarralderekin batera esanez: “Maila eta esparru guztietan erabiltzen ez den hizkuntza, gaixorik dagoen hizkuntza komunitate baten seinale da” (2004, [www.erabili.com](http://www.erabili.com)). Bi hizkuntzen arteko desoreka estrukturala artikulu honen lehen lerroaldean aipatu genuen asimilazio estrukturalaren fruitua da.

Gizarte-eremuak	frantsesa	euskara
Lege-estatutua	ofiziala	aitormenik gabe
Irakaskuntza	ezinbesteko	borondatezko
Administrazioa, zerbitzu publikoak	ezinbesteko	ahalezko eta bakan
Merkataritza	dena	gutxi
Hedabideak	gehienezko	gutxienezko
Seinaleztatapena, ingurumen linguistikoa	dena	bide-norabideak, udal-sarrerak, ...
Familia	gehienetan	bakanetan

**Laburbiltzeko, hizkuntza-politikaren partaideak hiru direla esan dezakegu. Alde batetik elkarrean egile/eragileak direnak, bestetik botere publikoak komanditario/ordaintzail eak direnak (eragileak ere kudeatzen dituzten alorretan) eta last but not least gizartea onuraduna dena.**

---

**Hizkuntzaren egoeraren balantzea kontuan hartuz, komunitate euskaldunaren bizindarra ahula izanez, agertzen da botere publikoek, euskal elkarteek eta euskaltzaleek lan asko egiteko dutela, egina izan dena eskasa baita. Bi hizkuntzen arteko desoreka estrukturala dinamikoa da, esan nahi baita mugikorra eta mugitzen dela.**

Hizkuntzaren egoeraren balantzea kontuan hartuz, komunitate euskaldunaren bizindarra ahula izanez, agertzen da botere publikoek, euskal elkarteek eta euskaltzaleek lan asko egiteko dutela, egina izan dena eskasa baita. Bi hizkuntzen arteko desoreka estrukturala dinamikoa da, esan nahi baita mugikorra eta mugitzen dela. Bi hizkuntzen berezko posizioak betierekoak ez dira.

## BIBLIOGRAFIA

- Baxok, Erramun, 1995, Herriaren aldeko gogoia ahultzen delarik hizkuntzaren aldeko atxikimendua ahultzen da, *Bat Soziolinguistika aldizkaria*, 16, 1995eko urria: 89-106, [www.soziolinguistika.org/modules/Bat/artikuloakPDF/16/BaxokElk.pdf](http://www.soziolinguistika.org/modules/Bat/artikuloakPDF/16/BaxokElk.pdf).
- , 1997, Soziolinguistikazko inkestaren irakaspen batzuk, *Bat Soziolinguistika aldizkaria*, 22/23, Donostia, Euskal Kulturaren Batzarrea: 15-27.
- , 2000, Hizkuntza eta lurraldea, *Soziolinguistika Klusterra*, [www.soziolinguistika.org/eu/node/833](http://www.soziolinguistika.org/eu/node/833).
- [eta Azurmendi, M.-J., Zabaleta F.], 2001, Reversing language shift: The case of Basque, in Joshua A. Fishman, *Can threatened languages be saved? Reversing language shift, revisited: A 21st century perspective*, Clevedon, Multilingual Matters: 234-259.
- [et al.], 2006, *Euskal nortasuna eta kultura XXI. mendearen hasieran*. Donostia, Eusko Ikaskuntza.
- , 2006, Eredu urriko hizkuntzak Europa Batuan, *Euskera*, 2006, 2, 51, Bilbo, Euskaltzaindia: 919-968. [http://www.erabili.com/zer\\_berri/muinetik/1166006420](http://www.erabili.com/zer_berri/muinetik/1166006420).
- , 2007, Euskaltzaindiaren eragina euskararen erakunde publikoaren hizkuntza politika proiektuan, *Euskera*, 2007, 1, 52, Bilbo, Euskaltzaindia: 403-410.
- , 2007, Euskara eta euskal kultura 2020 Ipar Euskal Herriko gogoetak, *Bat Soziolinguistika aldizkaria*, 65, Andoain, Soziolinguistika Klusterra: 27-38.
- Coyos, Jean-Baptiste, 2004, *Politique linguistique Langue basque et langue occitane du Béarn et de Gascogne*, Donostia-Baiona, Elkar.
- , 2006, Euskararen egoeraz Iparraldean: ohar batzuk sarrera gisa, *Bat Soziolinguistika aldizkaria*, 59, Andoain, Soziolinguistika Klusterra: 27-38.
- , 2006, Europar Batasuna eta euskararen aldeko hizkuntza politika Ipar Euskal Herrian, X. Jagon jardunaldiak, 2006ko azaroaren 24, Bilbo, Euskaltzaindia, *Euskera*, 2006-2, 5, 985-997. [http://www.erabili.com/zer\\_berri/muinetik/1166518039](http://www.erabili.com/zer_berri/muinetik/1166518039).
- , 2007, Euskararen kale erabileraren V. neurketaren emaitzez Ipar Euskal Herrian, *Bat Soziolinguistika aldizkaria*, 64, Andoain, Soziolinguistika Klusterra: 109-116.
- Etat – Région Aquitaine – Département des Pyrénées-Atlantiques – Conseil des Élus du Pays basque, 2000, *Convention spécifique Pays Basque*

- 2001-2006, 2000/12/22an izenpetua, polikopi, <http://www.lurraldea.net/bibliodocs/PB2010/conv-spedec01.pdf>.
- Euskal Herriko Garapen Kontseilua, 1996, 4. atala Hizkuntz antolaketa (Norabide orokorrak, 1996/10/26), *Euskal Herriko antolaketa eta garapen eskema*, Baiona, polikopi, <http://www.lurraldea.net/bibliodocs/PB2010/schema.pdf>.
- Euskal Herriko Hautetsien Kontseilua, 1997, 4. batzordea, Hizkuntz antolaketa (Programmes opérationnels, 1997/03/22), *Euskal Herriko antolaketa eta garapen eskema*, Baiona, <http://www.lurraldea.net/bibliodocs/PB2010/schemaDO.pdf>.
- Euskararen Erakunde Publikoa, 2005eko uztaila, *Euskararen eta euskarazko irakaskuntza eskaintzaren azterketa kuantitatiboa 2004-2005 ikasturtea*, polikopi elebiduna.
- , 2005eko urria, *Euskararen eta euskarazko irakaskuntza Epe luzeko programazioa 1. zatia Norabideak eta gauzatzea*, polikopi elebiduna.
- , 2006ko abendua, *Hizkuntza politika proiektua "Hiztun osoak helburu, haur eta gazteak lehentasun"*, polikopi elebiduna, [www.flarep.com/IKAS-BI/OfficePublicDecembre2006.pdf](http://www.flarep.com/IKAS-BI/OfficePublicDecembre2006.pdf).
- , 2007ko azaroaren 8, *Euskararen Erakunde publikoaren aurkezpena*, polikopi elebiduna, [files.eke.org/.../presentation\\_de\\_loffice\\_public\\_de\\_la\\_langue\\_basque/oplb\\_presentation\\_basque.pdf](http://files.eke.org/.../presentation_de_loffice_public_de_la_langue_basque/oplb_presentation_basque.pdf).
- Euskaltzaindia, Sustapen Batzordea, Hizkuntza politika aitzinproiektua "hiztun osoak helburu, haur eta gazteak lehentasun", *Euskera*, 2006, 2, 51. liburukia, Bilbo: 1029-1040.
- Eusko Jaurjaritza, Nafarroako Foru Aldundia, Euskal Kultur Erakundea, 2003, *Euskararen Jarraipena III – Euskal Herriko Soziolinguistikako Inkesta 2001*.
- Fishman, Joshua A., 1991, *Reversing Language Shift. Theoretical and Empirical Foundations of Assistance to Threatened Languages*, Clevedon/England, Multilingual Matters.
- Institut CSA, 2001 urria, *Sondage: Les parents d'enfants de 0 à 2 ans du B.A.B. et l'apprentissage de la langue basque*, polikopiatu.
- Léonard, Jean-Léo, Données statistiques de la pratique du basque et théorie de l'intégration, *Cahiers 10.2.2004*, Association for French Language Studies: 32-67, <http://www.afls.net/Cahiers/10.2/Leo%20Cahiers%2010.2.doc>.
- Martinez de Luna I., Usarralde I., 2004, Euskal hizkuntza komunitatearen bizindar etnolinguistikoa, [http://www.erabili.com/zer\\_berri/berriak/1098278199](http://www.erabili.com/zer_berri/berriak/1098278199).
- Sánchez Carrión "Txepetx", Jose Maria, 1987, *Un futuro para nuestro pasado: claves de la recuperación del euskara y teoría social de las lenguas*, San Sebastián.
- Soziolinguistika Klusterra, 2007, *Kale erabileraren V. neurketa 2006. Emaitzak, Azterketak, Gogoetak. Bat Soziolinguistika aldizkaria*, 64, Andoain,

## Soziolinguistika Klusterra.

Zalbide, Mikel 2003, Ahuldutako Hizkuntza Indarberritzea: teoriak zer dio? [http://www.erabili.com/zer\\_berri/muinetik/1056974834](http://www.erabili.com/zer_berri/muinetik/1056974834).

## OHARRAK

1. Euskaltzale sutsu batzuek pentsa lezakete ikerkuntza soziolinguistikoa alferrikakoa litekeela euskararen egoera ezagutzen baitugu, hori aztertu gabe, inkestarik egin gabe. Baina holako arrazoinamendua giza-zientzia denei aplikatu litzaieke. Ezagutza intuitiboa eta ezagutza zientifikoa errealitatearen ezagutza desberdinak dira; bigarrena baliatuz gure ekintzak egoki ditzakegu errealitatea aldatzeko.
2. J. W. Berry, J. A. Laponce (eds), *Ethnicity and Culture in Canada: the Research Landscape*, 1994, Toronto.
3. Integrazioaren teoria akulturazioaren teoriatik bereizten da bere errealitatea deskribatu nahian. "Integrazio estrukturala" juridikoa, instituzionala, nominala da; "integrazio funtzionalak" ekintza eta parte hartzearekin ikustea du. "Jarrerazko integrazioa" elkarrekiko balore-sistemari atxikitzeaz dependitzen da; hauteskunderetan, inkestetan agertzen da, usteak eta aitopenen agertaraziz (38-39. orr.).
4. J.-L. Léonardek Ipar Euskal Herriko egoeraz definizio zehatzago bat ematen du. Euskararen integrazio estrukturala segregazionista dela eta frantsesaren erabileraren aldeko aniztasun "asimilazionistari" lotutako bereizketa funtzionala dugula esaten du (63. orr.). Lehen urratsa gisa bederen, gure "asimilazio estrukturala" definizioa aski baliagarria dela pentsatzen dugu. Noski zehatzeko litzateke, azken bilakaerak kontuan hartuz, hizkuntza-politika publiko baten sortzea adibidez.
5. Txepetxek triptiko hori Commins eta Faginen 1954eko *Principles of Educational Psychology*-tik etortzen dela esaten du (1987: 109).
6. Ikus *Hizkuntza politika aitzinproiektuaren Hizkuntza politika proiektuaren eraikitzearen oinarrian* dauden printzipio orokorrak gehigarria, 2006ko urria, eta *Euskararen Erakunde publikoaren aurkezpena*, 2007ko azaroaren 8a, 13-14. orrialdeak.
7. " L'élaboration du Schéma d'Aménagement et de Développement du Pays Basque en 1997 a été l'occasion de bâtir un plan de réappropriation de la langue basque en prenant appui sur les préconisations formulées par Joshua Fischman (sic) ".
8. Nire itzulpena da.
9. Fismanen teoria ongi ulertzeko, irakurlea lan sakon horretara jo beza beraz.
10. Euskalterm Terminologia Bankuko webguneak *reversing language shift*-en itzulpen horiek ematen ditu: "hizkuntza-ordezkapena alderantzizkatze" euskaraz, "inversión del desplazamiento lingüístico" espainolez eta "inversion du transfert linguistique" frantsesez.
11. Coyos, *Euskararen alde Iparraldean garatzen ari den hizkuntza politika publikoaren proiektuaz*, 2006/07/11, <http://www.gipuzkoaeuskara.net/albisteak/1152630581>.
12. Ikus adibidez bere azken artikulua Euskara eta euskal kultura 2020 Ipar Euskal Herriko gogoe-tak, 2007, *Bat*, 65. Ikus ere frantsesez Michel Oronos, *Le mouvement culturel basque 1951-2001*, 2002, tome 1 eta Jakes Bortayrou ... [et al.], 2005, tome 2, Donostia-Baiona, Elkar.
13. Ikus testu osoa euskaraz in Baxok, 2006, *Euskera*: 942-960.
14. Administrazio horren organigraman lanpostu hori " Langues étrangères " [Atzerriko hizkuntzak] azpituarekin agertu zen. Gero, hilabete batzuen buruan, " Langues régionales "-z [Lurraldeetako kizkuntzak] zuzendua izan zen.
15. Euskaltzaindiak Frantziako Errepublikaren hizkuntzei buruzko lege-testu garrantzitsuenak euskaratu ditu *Hizkuntza-zuzenbidea. Testu bilduma euskaraz* liburuan (2007, Jagon bilduma 5). Liburu horretan ere nazioarteko, Europako eta Espainiako lege-testu garrantzitsuenak aurkitzen dira.
16. " *La langue de la République est le français* ".
17. Hezkuntzaren kodeak frantses legeria haren osotasunean kontuan hartzen du irakaskuntza kodeztzeko, ama-eskolatik unibertsiteraino (2000ko ekaina, geroztik emendatua). Testu orokor horrek ira-

kaskuntzari buruzko aurreko lege testu oroen lekua hartzen du.

18. *Proposition de loi constitutionnelle tendant à la reconnaissance des langues régionales.*

19. “ dans le respect des langues régionales qui font partie de notre patrimoine “.

20. Azkenak UNESCOren Kultura-Adierazpenen Aniztasuna Babestu eta Sustatzeko Konbentzioa, Frantziak 2006ko abenduaren 18an izenpetua (2007ko martxoaren 18an indarrean sartu da), eta Lisboaiko Itunari lotua den Europar Batasuneko Oinarritzko Eskubideen Gutuna (Frantziak 2008ko otsailaren 14an berretsia) izan dira. Azken hau 2001ko Nizako Itunaz batera bagenuen jadanik.

21. Hortarako ikus frantsesez *Le mouvement culturel basque 1951-2001*, Jakes Bortayrou ... [et al.], tome 2, 2005, Elkar.

22. Xehetasun asko Euskararen Erakunde Publikoaren *Euskararen eta euskarazko irakaskuntza eskaintza-aren azterketa kuantitatiboa 2004-2005 ikasturtea* ikerketan.

23. Europako Kontseiluaren *Erreferentzia Europar Bateratua* hizkuntzak ikasi, irakatsi eta bi prozesuen ebaluatzeko tresna da. Europako Erreferentzia Europar Bateratuaren eskalan B maila bigarren erreferentzia maila da, sei direlarik, A1, A2, B1, B2, C1, C2 maila apalenetik gorenera.

24. EEP-k Hizkuntza politikarako Obragintza Publikoaren lekua hartu du ; egitura publiko informal horrek 2000ko Euskal Herriko Hitzarmen berezia kudeatzen zuen. EEP-ren partaide nagusiak Frantses estatua, Akitania Eskualdeko Kontseilua eta Pirinio Atlantikoetako Kontseilu orokorra dira.

25. Horri buruz Euskaltzaindiko Sustapen Batzordeak egin zuen irizpena irakurriko da: Hizkuntza politika aitzinproiektua “ hiztun osoak helburu, haur eta gazteak lehentasun “, *Euskera*, 2006, 2: 1029-1040.

26. Botere publikoen jarreraren aldaeraz hona adibide batzuk Pirinio Atlantikoetako departamenduko prefetarekin. 2000an Euskal Herriko Hitzarmen berezirako bilkura batean, prefetak Eusko Jaurlaritzaren elkarreendako diru-laguntza “ diruaren bidezko kolonizazioa (*colonisation par l'argent*)” zela esan zuen. 2007ko otsailaren 7an Eusko Jaurlaritza eta Euskararen Erakunde Publikoaren arteko hitzarmena izenpetu dute, Eusko Jaurlaritzak ematen dituen Iparraldeko diru-laguntzak elgarrekin kudea ditzaten. 2007ko maiatzaren 11an, departamenduko beste prefetak eta EEPko lehendakariak Ipar Euskal Herriko auzapez guztiei gutun bat igorri diete esanez: “Bizitza publikoan euskararen erabilpenari arau eta legezko esparruari dagokionez, argitu nahi dugu euskara erabil daitekeela frantsesaren parean, dokumentu, zigilu eta komunikazio euskarri ofizial ezberdinetan, balio juridikoa frantsesezko bertsoiek bakarrik dutelarik”. 2008ko urtarrilaren 24ean Pirinio Atlantikoetako prefeta Bilbon zen Euskaltzaindiak eta EEPk beren arteko hitzarmena izenpetu dutenean. Zer aldaketa!

27. 6 lanpostu horietatik 2 postu erdi dira. Bere aldetik, Hendaia hiriak 2005eko urtarrilaren bere teknikari postua sortu zuen.

28. Ziburun jadanik elkarre batek Iparraldeko lehen haurtzaintegi euskalduna eraiki zuen.

29. Esamolde hori Iñaki Martínez de Lunarena da (*Soziolinguistika, Jakin*, 2003, 136: 112).